NAHITAEZKOA EZ DEN LEGEZKO IRITZIA, HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEAK (IVAP-EK) EUSKO JAURLARITZAKO ZERBITZU JURIDIKO NAGUSIARI EGINDAKO KONTSULTEI ERANTZUTEKO EMATEN DENA, HURRENGO GAIARI BURUZKOA: IVAPEN ZUZENDARIAREN ESKUMENA, ETA BERE EBAZPENEN IZAPIDETZEA.

112/2025 LI LGAKZ
CCSS_SOI_8178/25_43

I. AURREKARIAK

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (aurrerantzean, IVAPeko) Aholkularitza Juridikoak kontsulta egin dio Zerbitzu Juridiko Nagusi honi, erakunde horren Zuzendariaren ebazpenen izapidetzearen inguruan.

Zehazki, bi gai desberdinen inguruan egin du kontsulta: alde batetik, pertsona fisikoek emandako zerbitzu eta lankidetza jakin batzuengatik dagozkion ordainsariak ezartzen dituen ebazpenaren inguruan; bestetik, hautatzeko prozesuan hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko irizpideak ezartzeko ebazpenaren inguruan[1].

Honako legezko iritzia emateko eskumena hurrengo arauan oinarritzen da: 144/2017 Dekretua, apirilaren 25ekoa, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoarena.

II. OINARRI JURIDIKOAK

[1] Hurrengo Aginduko 4. Artikuluan ezartzen da: AGINDUA, 2025eko azaroaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen diren euskararen jakite-mailak egiaztatzeko eta ebaluatzeko sistemak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 26.1.b) artikuluan ezarritakoak.

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

LOKALIZATZAILEA / LOCALIZADOR: J0D0Z-T7NPT-7X05
EGOITZA ELEKTRONIKOA / SEDE ELECTRÓNICA: https://euskadi.eus/lokalizatzailea / https://euskadi.eus/localizador
SINATZAILE / FIRMANTE: XABIER UNANUE ORTEGA | 2025/12/23 10:05:04
SINATZAILE / FIRMANTE: AMAIA IZAGUIRRE DIAZ | 2025/12/23 11:42:46

Erakundeak bidalitako kontsultatik ondoriozta daitekeenez, kontsulta egiteko erabilitako terminoek hurrengo aurrekariak dituzte:

1. IVAPeren Araubide Juridikoari buruzko uztailaren 27ko 16/1983 Legearen 1. artikuluan jasotakoaren arabera, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea organismo autonomo administratiboa da, eta funtzio publikoaren arloko eskumena duen sailari atxikita dago.
2. IVAPek nortasun juridiko propioa du, eta helburuak betetzen jarduteko gaitasun osoa.
3. Hori horrela izanik, IVAPeko Zuzendariak, IVAPekin lankidetzan diharduten profesionalen ordainsariak ezartzeko, zuzendariaren ebazpen bat argitaratzen du.
4. Eskumen hori aitortuta dauka bere Egitura-Dekretuko 6.2 j) artikuluan.
5. Enplegu Publikoari buruzko 11/2022 Legearen 189. artikuluak IVAPi esleitzen dio hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko eskumena.
6. Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko 19/2024 Dekretuko 28. eta 29. artikuluetan hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko bi modu berri arautzeko aukera zabaltzen da (28. art.: hautaketa-prozesua euskaraz egitea, 29. art.: lanpostuaren eginkizunetan euskara erabiltzea).
7. Dekretuaren 28 eta 29. artikuluetan jasotakoa garatzeko, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak agindu bat argitaratu berri du: 2025eko azaroaren 11ko Agindua, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen diren euskararen jakite-mailak egiaztatzeko eta ebaluatzeko sistemak, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 26.1.b) artikuluan ezarritakoak. Agindu horren 4. artikuluak ezartzen du hautaketa-prozesua euskaraz egiteko IVAPek zein irizpideak, zein ebazpen bidez deialdiak argitaratuko dituela.
8. Era berean, aginduaren 5. artikuluak dio IVAPek, ebazpen bidez, deialdiak egingo dituela hizkuntza eginkizunak egiaztatzeko lanpostuan euskara erabiliz.

Horiek horrela, IVAPek hurrengo galderak egin dizkigu Zerbitzu Juridiko Nagusiari:

1.- *IVAPeko zuzendariak sinatu dezake izaera arauemailea daukan ebazpen bat?*

2- Izaera arauemailea daukan ebazpen bat egin nahi badu IVAPeko zuzendariak, 6/2022 Legeko xedapen orokorrak bezala izapidetu behar da? Beti?

1.- IVAPeko zuzendariak sinatu dezake izaera arauemailea daukan ebazpen bat?

Galdera honi erantzuteko, lehenengo erreglamenduen eta administrazio-egintzen artean bereizi behar dugu, IVAPen zuzendariak emandako ebazpen batek izaera bat edo bestea duen argitzeko.

a) Erregelamendua

Honela definitzen da, oro har, erregelamenduak egiteko ahalmena: botere betearazleari esleitzen zaion ahalmena lege-mailaren azpitik dauden arauak, hau da, erregelamenduak, emateko, lege horiek garatuz edo aplikatuz normalean. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 97. artikuluak Gobernuari ematen dio erregelamenduak egiteko ahal hori, botere betearazlearen buru den heinean; Gobernuak *Konstituzioarekin eta legeekin bat etorriz* baliatu behar du ahal hori:

> *Gobernuak barne eta kanpoko politika gidatuko du, baita Administrazio zibil eta militarra eta Estatuaren defentsa ere. Aginte boterea eta arauzko ahalmena erabiliko ditu Konstituzio eta legeen arabera.*

Erregelamenduak xedapen orokorrak dira, ordenamendu juridikoa berritzeko gaitasuna dutenak. Horretan bereizten dira administrazio-egintzetatik, horiek ordenamendua kasu jakin batean aplikatzera mugatzen baitira. Erregelamenduak izan daitezke betearazleak (lege baten pean egina edo legeek baimenduta egidakoak) edota independenteak (ez datoz lege mandatuetatik). Erregelamenduen bitartez, Gobernuak ordenamendu juridikoa betetzea bermatzen du.

Espainiako Konstituzioak Gobernuari baino ez dio ematen erregelamenduak egiteko ahala. Nolanahi ere, Gobernuak zenbait organoren bitartez jarduten du. Azaroaren 27ko Gobernuaren 50/1997 Legean, Ministro Kontseiluari esleitzen zaio legeak garatu eta betearazteko erregelamenduak onesteko eskumena, errege-dekretuen bitartez baliatuko duena; ministroei esleitzen zaie bakoitzaren sailari dagozkion gaietan erregelamenduak egiteko ahala, ministro-aginduen bitartez baliatuko dutena. Gobernuko presidenteari ere aitortzen dio erregelamenduak egiteko ahal hori.

Gobernuaren erregelamenduek arau-multzo hierarkizatua osatzen dute: 1) Presidentearen eta Ministro Kontseiluaren errege-dekretuak eta 2) ministro-aginduak. Erregelamendu horiek baino ez dira zuzenean sartzen Espainiako Konstituzioaren 97. artikuluan. **Maila txikiagoko administrazio-organoetatik eratorritako gainerako erregelamendu-xedapenetarako, legegintzarako gaikuntza behar da**. **Kasu horietatik aparte, barneko instrukzio edo gidalerro soilak izango dira, araudia interpretatu, aplikatu eta administrazio-lana antolatzekoak;** agindu hierarkikoak dira, eta ez dute osatzen herritarrei eragiten dien zuzenbide objektiborik.

Erregelamenduak, administrazioaren emaitza izaki, administrazioari esleitutako funtzioen eremuan jardungo du. Haatik, administrazio-gai horien artean bereizi behar dira, batetik, administrazioaren barneko gaiak direnak, eta, bestetik, herritarren eskubide eta eginbeharrei ere eragiten dietenak. Lehen kasuan, antolamendu-eremua izango da administrazioak erregelamenduak egiteko duen ahala baliatzeko eremu nagusia. Bigarrenean, administrazio gaiak izanagatik ere, gai horiek erregulatzeko betebeharrak eta eginbeharrak ezarri behar badira edo herritarren eskubideak murriztu, orduan erregelamendua legearen osagarria izatera mugatu beharko da. Azken kasu horretan, erregelamenduak egiteko ahalaz gainera, administrazioak legezko gaikuntza espezifiko bat ere beharko du, legeak erregelamendurako egindakoa. Legezko gaikuntza hori ez da beharrezkoa izango baldin eta erregelamenduak administrazioaren barneko antolamendu-eremuan jarduten badu.

Halaber, Konstituzioak **autonomia-erkidegoei autonomia aitortzen die,** bakoitzak bere interesak kudeatu ditzan. Eta horretarako botere legegile eta arauemailea daukate. Horrenbestez, hori bera aitzatesten da Euskadin ere, Euskadin, gure autonomia Estatutuan eta Jaurlaritzaren legean (Ekainaren 30eko 7/1981 Legea, "Jaurlaritzaren Legea").

Autonomia-erkidegoetako erregelamenduak eta Estatuaren erregelamenduak antzera izendatzen dira (dekretuak, aginduak)**, eta Estatuaren organoen baliokide direnei esleitzen zaie horiek emateko ahala**:

Jaurlaritza legeak, bere 16 eta 18.c artikuluetan, Jaurlaritzari (Gobernu kontseiluari) esleitzen dio, lehenengo maila zuzen baten, legeak garatzeko botere arauemailea. Arau horiek Dekretu izaera hartuko dute (Jaurlaritza lege horren 59.1 eta 60 artikuluak).

Aldiz, bigarren maila baten eta bere sailaren eginkizunetarako, arauak emateko botere hori esleitzen zaie ere Sailburuei, Agindu bidez emango dena (Jaurlaritza legearen 59.2 eta 61. Artikuluak).

Sailkapen hori berretsi egiten da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legean, zeinaren 3. artikuluak honela esaten du (kontutan izanda legeak lege lerrun hori duten arauak direla eta, gainerakoek, erreglamendu lerruna bakarrik dutenak):

> *3. artikulua.– Arau-xedapen orokorraren kontzeptua.*
> *1.– Lege honen ondorioetarako, xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak.*
> *2.– Ez dira halakotzat joko, nahiz eta batzuk eta besteak organo berek emanak izan eta xedapen orokor arauemaileen forma berbera hartu, hartzaile-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-ebazpen edo xedapen partikularrak eta xedapen orokorrak, betiere batzuk eta besteak administrazio-egintzatzat baino hartzen ez badira, iraunkortasun-asmorik ez izanik, behin bakarrik aplikatuta agortzen direlako, nahiz eta kasu askotan aplikatuak izateko asmoa izan edota edukia administrazio-egintza orokor horietan zeharo zehaztuta dakarten beste betearazpen-egintza batzuk eragin.*
> *(…)*

b) Administrazio-egintzak

Administrazio-egintza administrazio-zuzenbidearen oinarrizko instituzioetako bat da, hots, administrazio publikoaren deklarazio edota aldebakarreko deklarazioa. Deklarazio edo adierazpen hori hainbat motatakoa izan daiteke: borondate-deklarazioa, nahiaren deklarazioa, jakitearena edo judizioarena. Nolanahi ere, deklarazio horrek ezaugarri berezia du; izan ere, ondorio juridikoak sortzen ditu; ez da jarduketa material soila.

Administrazioak administrazio-ahal bat baliatzearen ondorioz sortzen da adierazpena, eta ahal horrek erregelamendu-ahalaz bestelakoa izan behar du; izan ere, erregelamendu-ahalaren kasuan, administrazio publikoak ez du administrazio-egintza bat egiten, erregelamendu bat baizik. Administrazioari administrazio-egintzak egitea ahalbidetzen dion administrazio-ahala arau juridiko batek ematen dio.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean 39/2015ko Legearen) 34.1 artikuluaren arabera, *Administrazio publikoen ofiziozko nahiz interesdunak eskatutako egintzak eskumena duen organoak gauzatuko ditu, ezarritako betekizunei eta prozedurari jarraituz.*

Hortaz, administrazio-egintzek ez dute izaera arau emailea. Berdin da zer forma daukaten (dekretu, agindu, ebazpen). Izaera arau emailea izango dute, soilik, baldin eta lege batek (Jaurlaritza legeak, adibidez) aitortzen badie izaera hori; bestela, administrazio egintzak baino ez dira.

Hau ikusi eta gero, argi geratu behar da **IVAPeko zuzendariaren ebazpen batek administrazio egintza izaera duela, eta ezin dela erreglamendu, arau edo xedapen orokor bezala ulertu**.

2.- Ebazpen bat egin nahi badu IVAPeko zuzendariak, 6/2022 Legeko xedapen orokorrak bezala izapidetu behar da?

a) Ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (zeinaren bidez arautzen baita Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura) aplikazio eremua

Hau erantzuteko, ekainaren 30eko 6/2022 Legearen (zeinaren bidez arautzen baita Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura) aplikazio eremua aztertu behar dugu, batetik, eta bestetik IVAPeko zuzendariaren eskumena zein den.

Aurrekoa argituta, ekainaren 30eko 6/2022 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legea (aurrerantzean, 6/2022 Legea), hurrengo hauei ezartzen zaie: Eusko Jaurlaritzako eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko xedapen orokorrei; hala ezartzen baitu lege horretako 2.1 artikuluak:

– *Eusko Jaurlaritzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak egiten dituzten xedapen orokorrei ezarriko zaie lege hau. Lege-mailako arauetan bestelako prozedura espezifiko bat ezarria duten beste xedapenak prozedura horren arabera egingo dira; hala ere, lege honetan ezarritakoa modu osagarrian aplikatuko da*

Hariari jarraituz, lehen esan bezala, 3.1 artikuluak zehazten du zeintzuk dira, legearen ondorioetarako, xedapenak orokorrak:

– *Lege honen ondorioetarako, xedapen orokor arauemaileak dira, edozein gairen gainekoak izanik ere, legearen, legegintzako dekretuaren, dekretuaren edo aginduaren forma hartzen dutenak, eta antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten eta zehaztutako edo zehaztu gabeko epe baterako mota askotako egintzen oinarri diren xedapenak.*

3.2 artikuluak, bere aldetik, hurrengoa ezartzen du: zer ez da joko xedapen orokor arauemailetzat:

> *Ez dira halakotzat joko, nahiz eta batzuk eta besteak organo berek emanak izan eta xedapen orokor arauemaileen forma berbera hartu, hartzaile-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-ebazpen edo xedapen partikularrak eta xedapen orokorrak, betiere batzuk eta besteak administrazio-egintzatzat baino hartzen ez badira, iraunkortasun-asmorik ez izanik, behin bakarrik aplikatuta agortzen direlako, nahiz eta kasu askotan aplikatuak izateko asmoa izan edota edukia administrazio-egintza orokor horietan zeharo zehaztuta dakarten beste betearazpen-egintza batzuk eragin.*

Beraz, erregelamenduei baino ez zaie ezartzen 6/2022ko legeak arautzen duen izapidetze prozedura.

Edonola ere, egia da lehen irakurketa baten 3. artikuluko 6. atalak bestelako xedapenei erreferentzia egiten diola irudi lezakeela:

Xedapen orokorrek arau osagarriak behar badituzte edo garatzeko beste xedapen batzuetara jotzen badute, azken horiek izaera arauemailea izango dute, batez ere lehenengoek egindakoak zurian dauden igorpenak badira edo arau-trinkotasun gutxikoak badira.

Aurrekoa agindu bati aplikatzen badiogu, agian uler daiteke agindu batek bere garapenerako beheragoko arau osagarri batetara jo lezakeela, alegia. ebazpen batera adibidez. Guk ordea ez dugu hori uste.

Hasteko, argi dago aurreko atal hori arazorik gabe aplikatu dakiekeela beheagoko dekretu osagarri batetara jotzen duen lege bati, edo agindu osagarri batetara jotzen duen dekretu bati. Hargatik, xedapen horiek beti izango dira erregelamenduak. Ildo berean, atal hori gehitzerakoan, badirudi legegilea Dekretu baten osagarri gisa ematen diren aginduetan pentsatzen ari zela, ez, ordea, ebazpenetan, IVAPek adierazten duen moduan.

Hitz batean, administrazio ekintzek ez dute jarraitu behar 6/2022ko Legek aurreikusten duen izapidetzea.

b) IVAPeko zuzendariaren eskumena

Aurrekoa finkatuta, beharrezkotzat jotzen dugu aztertzea zeintzuk diren IVAPeko gobernu organoak, baita euren eskumenak ere.

Aurrekoaren harira, maiatzaren 4koa, 133/2021 Dekretuaren, zeinaren bidez Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen egitura eta egitekoak arautzen baitira (aurrerantzean 133/2021 Dekretua) 4. artikuluaren arabera, hurrengoak dira IVAPeko gobernu organoak: Zaingo Batzordea eta Zuzendaria.

Modu berean, maiatzaren 4ko 133/2021 Dekretuaren 6.2 j) artikuluak dio IVAPeko Zuzendariaren eskumena dela Organismo autonomoaren berezko helburuak betetzeko egindako prestakuntza-jarduerengatik eta elkarlan zehatzengatik eman behar diren ordainsariak onartzea, ezarrita dauden aurrekontu-kontsignazioen barruan.

Ildo beretik, 6.2 m) artikuluak hurrengo eskumena ematen dio IVAPeko Zuzendariari: *IVAP osatzen duten zerbitzuen helburuak bete eta dagozkien egitekoak aurrera eramateko behar diren deialdiak eta ebazpenak onartzea.*

Horren kariaz, IVAPeko zuzendariak ebazpenak eman ditzake bakarrik. Hau da, printzipioz, ez du erregelamenduak (hau da, izaera arau emaileko xedapenak) egiteko eskumenik.

3.- Aztertuaren aplikazioa: aztergai dugun kasuetara.

3.1.- IVAPek antolatutako jardueretan erakunde honi pertsona fisikoek emandako zerbitzu eta lankidetza jakin batzuengatik dagozkion ordainsarien ebazpenak.

IVAPekin lankidetzan diharduten profesionalen ordainsariak ezartzeko, IVAPeko Zuzendariak ebazpen bat argitaratzen du. Erakunde horren Aholkularitza Jurikoak deritzo ebazpen horrek izaera arau emailea duela. Guk ez dugu hori bera uzte, ez behintzat azaldutako lege eta arauek erabiltzen duten adiera berean.

Aztertutako araudia kontuan izanda, eta baita ebazpenaren edukia ikusita ere, letradu honen aburuz, ordainsariak onartzeak ez du izaera arau emailerik: alde batetik, ebazpenek ez dutelako izaera hori; eta, bestetik, ebazpenaren edukia ikusita, ez dirudielako araurik ezartzen duenik; aldiz, esan genezake, adierazpen bat egiten duela (hots, zehazten du talde zehatz bat jasoko duen ordainsariak) eta adierazpen horrek, eragin juridikoak izan arren, egintza administratibo izaera duela, baina ez arau edo xedapen orokor arauemaile batena.

Orobat, ikusi dugunez, 133/2021ko Dekretuaren 6.2 j) artikuluak eskumena ematen dio IVAPeko Zuzendariari erakunde horrek antolatutako jardueretan ordainsariak onartzeko. Beraz, Zuzendariaren eskumena den heinean, ebazpen bidez egin behar da onarpen hori. Berebat, gogorarazten zaio erakundeari, 133/2021ko Dekretua dagoeneko aztertu egin zela Zerbitzu Juridiko Nagusi honetan; beraz, Dekretu horrek arautzen dituen eskumenei dagokienez, Dekretu horren legezkotasun txostenera eusten diogu.

3.2- Hautaketa-prozesuetan hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko prozedura.

Hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko prozedurari dagokionez, 2025eko azaroaren 13an Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak hurrengo Agindua argitaratu zuen: AGINDUA, 2025eko azaroaren 4koa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen diren euskararen jakite-mailak egiaztatzeko eta ebaluatzeko sistemak, Euskal Sektore

Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren 26.1.b) artikuluan ezarritakoak.

Agindua hurrengo arauen ondorioz ematen da: Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen, batetik; eta otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren (Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa) ondorioz, bestetik.

2025eko azaroaren 4ko Aginduaren 1. artikuluak ezartzen duenez, bere *xedea da euskararen ezagutza egiaztatzeko eta ebaluatzeko bi sistema hauek arautzea, euskal sektore publikoko entitateetan lanpostuei esleitutako hizkuntza-eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko:*

a) Langileak hautatzeko edo lanpostuak betetzeko prozesua euskaraz egitea eta gainditzea.
b) Euskararen erabilera lanpostuan.

IVAPen galdera 1. artikuluaren a) atalari buruzkoa da. Atal hori, Aginduaren 4. Artikuluan ezartzen da, eta honako hau dio:

> *4. artikulua.– Hizkuntza-eskakizunak egiaztatzea, langileak hautatzeko edo lanpostuak betetzeko prozesua euskaraz eginez eta gainditzuz.*
>
> > *1.– IVAPek hautaketa-prozesuen probak baliozkotzeko irizpideak argitaratuko ditu. Euskal sektore publikoko entitateek eta EAEko administrazio publikoek irizpide horiek betez diseinatuko dituzte oinarriak eta probak, baldin eta 28. artikuluko egiaztatze-sistema erabiliko badute. Genero-ikuspegia bermatuz zehaztuko ditu IVAPek, hizkuntzari dagokionez, probak prestatzeko irizpideak; hornikuntza-prozesua deitzen duen entitateak genero-ikuspegitik diseinatuko ditu oinarriak eta probak.*
> >
> > *2.– Ezertan ere eragotzi gabe hautaketa-organoetan Administrazio Publikoaren Euskal Institutuari dagokion ordezkaritza, entitateak IVAPi eskatuko dio ordezkari bat izendatzeko, hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeaz arduratuko dena. Hautaketa-organoen kide izango da eta horretara mugatuko da bere lana. Ez du epaimahaiaren ohiko bileretan parte hartuko.*

3.– Euskararen jakite-maila egiaztatze aldera, hautaketa- edo hornikuntza-prozesua deitzen duen entitateak oinarrietan zehaztuko du prozesuan sistema hau aplikatuko den, eta, horrez gain, euskarako proba espezifikoa egiteko aukera izango den. Bi sistemak erabiliz gero, hautagaiak sistema bakarra aukeratu eta baliatuko du.

4.– Entitateak IVAPera bidaliko ditu hautaketa-prozesuaren oinarriak eta probak, hartarako jarriko den epean, IVAPek baliozkotzeko, hala badagokio. IVAPek ahozko eta idatzizko komunikazio-gaitasunaren mailak ebaluatzeko aukera ematen duten aztertuko du eta aginduzko txostena egingo du. Txostena loteslea izango da.

5.– Proben diseinuan bermatuko da proba horiek ongi doitzen direla eta bat datozela lanpostuari dagozkion funtzioen euskarako komunikazio-gaitasunarekin.

6.– Entitateak prozesuaren probak aplikatu ondoren, idatzizko zein ahozko ekoizpenak jasoko ditu IVAPek, bertan zuzendu eta ebaluatzeko, hizkuntza-eskakizunak egiaztatze aldera.

7.– Egiaztapenak IVAPek jasoko ditu bere erregistroan, eta hortik era automatizatuan erantsiko dira Euskara Tituluen eta Ziurtagirien Erregistro Bateratuan (aurrerantzean, ETZEB), bi erregistroak elkarrekin konektatuta baitaude.

8.– Egiaztatze-sistema hau inplementatzeko behar diren deialdiak, egingo ditu IVAPek ebazpen bidez. Deialdietan finkatuko dira epeak eta parte hartzeko prozedura zehatzak.

Finean, IVAPek dio ez dituela egingo 4.8an aipatzen diren deialdiak praktikan ezinezkoa delako. Beraz, prozedura eta irizpideak moduren baten argitaratu beharko ditu, eta horien arabera egingo dira egiaztatze guztiak. Alde horretatik, IVAPek zerbitzu honi bere galdera planteatzerakoan, hurrengoak proposatzen ditu, irizpide horiek modu egonkorrean gauzatzeko modu bezala:

a) IVAPeko zuzendariaren ebazpen bat egitea, Dekretuko 28. artikulua eta Aginduko 4. artikulua garatzen dituena, eta ebazpen hori izapidetzeko, memoria bat eta txosten juridikoa eskatzea.

b) IVAPeko zuzendariaren ebazpen bat egitea, Dekretuko 28. artikulua eta Aginduko 4. artikulua garatzen dituena, eta 6/2022 Legean aurreikusitako prozedura jarraitzea.

c) Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburuaren agindu bat egitea, Dekretuko 28. artikulua eta Aginduko 4. artikulua garatzen dituena, eta 6/2022 Legean aurreikusitako prozedura jarraitzea.

Letradu honen ustez, IVAPek proposatutako aterabideak, bederen, lehenengo biak (a eta b) ez daude zuzenbidean oinarrituta. Izan ere, ebazpen batek aldi baterako balioa du; horregatik, Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailak, zuzen ezarri zuen IVAPek deialdiak egin beharko dituela, deialdiak aldi baterakoak direlako eta, horrenbestez, administrazio egintza argi argiak.

Azken buruan, ebazpen batek ezin ditu izan arau ondorioak, aldi baterako balioa baizik; hortaz, balioa izango du soilik, hautaketa prozesu zehatz batzuetarako (deialdi horretan parte hartzen dutenen administrazio eta erakundeen hautaketa prozesuetarako, alegia).

Ildo beretik, 6/2022ko 3.2 artikuluak dio ez direla xedapen orokor arautzat joko *hartzaile-multzo zehatzei edo zehaztu daitezkeenei eragiten dieten administrazio-ebazpenak iraunkortasun-asmorik ez izanik, behin bakarrik aplikatuta agortzen direlako, nahiz eta kasu askotan aplikatuak izateko asmoa izan.*

Hortaz, aipatuetatik lehenengo aterabidean proposatzen den ebazpen baten bidez eman edo argitaratu ditzake IVAPeko zuzendariak irizpideok, azaltzen den prozedura erabilita. Baina horiek ezin dira modu egonkorrean mantendu, nahi den bezala.

Bestetik, bigarren aterabidean proposatzen den prozedura jarraituta IVAPen xedapen bati izaera arauemailea ematea, egonkortasun hori izan dezan, ez da bideragarria, IVAPeko zuzendariak ez duelako eskumen arauemailerik.

Beharbada, ebazpen horiek, deialdi baterako ez ezik, deialdi askotara aplikagarri diren irizpideak eman nahi baditu, IVAPek bere atxikipen sailaren buru den Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailburuaren agindu baten bidez egin daiteke. Sailburuak bai, bere sail barneko ondorioetarako (eta IVAPen jarduna arautzea bere eskumenen artean dago) baduelako eskumen arauemailea. Agindu horrek, noski,

6/2022 Legearen prozedura jarraitu beharko luke, xedapen orokor arauemaile den neurrian. Eta hori, Jaurlaritza legeak eskumen hori aintzatesten diolako.

Izan ere, lehen azaldu bezala, agindu batek arau ondorioak izan ditzake, baina, betiere, lege batek eskumen hori ematen badio. Hau da, lege batek aurretik ezarri badu egiaztatze sistema hori inplementatzeko agindu bat egingo dela. Alde horretatik, ez dirudi, kasu zehatz honetan, baldintza hori betetzen denik.

Hau guztia esanda,

III. ONDORIOAK

Horiek horrela, honako hau uste dugu:

1. Zuzendarien ebazpenek ez dute arau emaile izaerarik, ez baitira, legearen arabera, erregelamenduak; aitzitik, administrazio-egintzak dira.

2. Xedapenak orokorrek (hau da, erregelamenduek) baino ez dute jarraitu behar ekainaren 30eko 6/2022 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legeak arautzen duen izapidetze prozesua. Beraz, administrazio egintzako ebazpenek ez dute prozesu hori jarraitu behar.

Hauxe da nire iritzia, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozeinen mende jartzen dut.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren datan.